



**UDALDIAN
GORLIZ'KO
ONDARTZA
EDERRA**

Porque lo nuestro es Vizcaya Bizkaia geurea dogulako

Coupe en nosotros

Zenue nortea gurean



**CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO
BILBO AURREZKI KUTXA**

U D A L D I A

Ona emen aurten be, urte guztietan lez, udaldia bere poz eta atsedean - aldiakaz, bere opor eta jolas - aldiakaz.

Guztia ei da langintzaren aurrerapenaren ondorena, naizta aspaldiko urteetan, eta aurrerantzen be urte batzutarako, larri - aldi gorrian bere burua ikusi langintzaren aurrerabide onek.

Aurrerapen orrek, len gizonaren eskuz egiten izan diran lan asko ta aundiak tramankuluen bidez egi-tea ekarri dausku; orregaitik langilleen opor - aldiak geroago ta luzeagoak izatea, egunaren barruko lan - or-duak geroago ta urriagoak artzea edo berba bataz esateko astidun gizarterantza jotea. Ori orrelan da, baiña nork esango leuke gaur astidun gizarterantza goazela, iñok ezertarako astirik ez daukon aldi onetan.

Dana dala, arazoa or dago: Tramankuluak gizonaren lana egiteak aberatsak aberatsago eta txiroak ugariago izateko bidea ekarri legi, kontuz jokatzan ez ba'da ta irabaziak ondo banatzeko bidea zabaltzen ez ba'da. Gaurko larri - aldi onen ondoren, urtenbidea lan - orduak urritzea izan daiteke eta baltzuak txirotuta geratuko diran ezker, langilleentzat lan gitxi, irabazi gitxi geratzea. Eta giro orrek burruka barriak ekarri le-gikez.

* * *

Baiña ba - datoz oporraldiak eta jaiak. Errietako jaiak ugaritu egin dira eta errien nortasuna go-ratzeko bide egokia dira. Ez dira gorabera txikiak izaten erritarrak, batez be gazteak, jaiak eratzeko alkartzan diranean, baiña azken baten jaiak ugari ta naikoa atsegingarriak sortzen dira.

Eta gero ondartzetarako jokerea. Jokera au ez da ain zarra, guda - ostetik asita sortua geienbat, baiña geroago ta biziagoa bai.

Beste batzuk osteraz izadiagaz bakea egiteko, bakar - lekuak eta mendiak billatzen dabez. Ba - dauka onetan be aukera ederra gure Euskalerrriak!

* * *

Ibillaldiak be ugariago izaten dira aldi onetan. Batzuk Euskalerrriaren barruan egiten dabez txango ederrak eta Iparraldean naiz egoaldean, Euzkadi ezotan naiz Euzkadi legorrean ba - dagoz zer - ikusi ederrak, mendi - gain zoragarriak eta etxegintzako ederti - lan txalogarriak, batez be Naparroa - aldean.

Askota txango luzeagoak egiteko urriñago abiatzen diranak be. Ori be gauza ederra, askotariko ja-kintzak alkartasunean batzeko.

Ibilli ta ibilli ete dan gaurko gizonaren egarria, bai trenez, bai egazkiñez, bai itxasoz eta ez gitxiago be-billez. Lekuko, urietara sarreran aurkitzen doguzan berebil - lerro amaitu - eziñak.

* * *

Ba - dira udaldian ekintza berezi ta onuragarriak egiten dabezanak be. Batzuk euskerea ikasteko edo erabilteko ikastaroetara edo baserrietara joaten dira, beste batzuk euren lanerako trebebidetara billa ikas-taldiak egiten dabez eta sarritan ikastaldiakaz batera itxas - ertzeko errietan azazkaldiak be izaten dira.

* * *

Aukerak ugari dira, zeregiñak be bai, izan dagiezala ba ZER onen irakurle guztiak egun pozgarriak udaldi onetan eta opor - aldian.

AITA JUXTO MOKOROA

«Colegio PP. Escolapios. — Alameda Recalde, 19. — Bilbao - 9». — Bilbo'tik Maiatzaren 2 - an.

Agur Bixente: Egunak aidean joaten zaizkit, eta aztu ere egin zait noiz ekarri zidan Jon Erramon Ramon Bilbao-k zure liburua.

Agertu ta laster, erakutsia zidan emen inguruko adiskide batek, eta arnas batean iruntsirik neukan.

Esan bearrik al det zer nolako eskerrarekin jaso dedan zure erregaloa —egille bien eskaintzaz gozatua—, nere libururik maiteenen artean gordetzeko? Nere goraintziak bion - ala - bioi! Ba zan ordu, norbaitek kopeta erakutsi zezaion Euskaltzaindi dalako orri; eta zuek izan zerate gizonak!

Euskera batua zergaitik zabaldu dan? Zerorrek dakizunaz - gain etzait irudi nik jakin nezaken. Berrogei urteko uztarpetzan gure gurasoaldiko umeak ez dute izan euskaltasunean eziturik; eta izate jatorraren etsaia indarrez dator bere lanera, ZANIK - GABEKO EUSKAL - ANTZ BAT arturik, gazteria bereganatzearen: arrantzaleak garrangari bixka jartzen dion bezela arrai gaxoaren engañagarri.

Goraintziak berriz - ere, eta esan nai dezun guztia zure adiskide oni.

MOKOROA'tar JUXTOMARI

Aita Mokoroa'gandik artu dodan eskutitz au, aren baimenik gabe argitaratzen dot. Aspaldi - aspalditik biok adiskide zar sendoak geralako, eta batak besteagan uste osoa dogulako, ez yat ba iruditu, ortarako aren baimenaren bearrik dodanik ere.

Datorren illeko zenbakian beste, gai bereko, eskutitz bat argitaratuko dot, Ameriketako Laterri Alkartuetatik «Latxaga» izkuntzalari yayoak idatzia. Argitaratu - berria dogun «Euskaltzindiari Epaiketa» izeneko liburua, aztertzen dau «Latxaga»k gutun ortan.

Bearrezkoak dirala uste dot Mokoroa eta Latxaga bezelako gizon jakintsu bikaiñen iritziak argitara emotea; Lorailleko ZERk jakiñarazi dausku lez eman dau ba bereaa «Jakin» aldizkarian, Manolo Pagola'k, aldi berean Eusko Alderdi Jeltzalearen aurka eta gure liburu orren aurka mintzatuaz.

Ez dot ezaguten Manolo Pagola Jauna Baiño bere idazlan ori irakurriko dot «Jakin» Aldizkarian bertan, eta erantzungo dautsot antxe merezi dauan bezala «Bakoitzari berea» da gizarteko legea.

ZERek diñonezz Pagola orren iritziaren atalik nabarmeneanak auexek doguz:

«Euskaltzaindiari Epaiketa», «panfleto lotsagarri bat», eta «ez ankarik ez bururik ez daun liburu triste bat» dala, «irudimenik gaisoenak ere bekez asmatuko leuskeen aleak jaurtitzen» dauzala.

Ori esatea erreza da. Ori egiztatzea da zaila, Eta Pagola Jaunak «esan» besterik ez dau egiten. Ez dau ezer egiztatzen. Arrazoirik batere eman gabe jardun yaku mintzatzten. «El batua»zaleak eta iraultzale ezkertiar amorratuek orrela egiten dabe lan. Arrazoia ankapetutata, iseka eta bomba jaurtiaz. Ori ote da «Jakin»en Jakintza?

Egia esan dau ZERen «Gorri»k: «Orrelako eritxiz beterrik dago «JAKIN», eta irakurle zentzun - dun batek ikusi baño ez dau gezurkeriz eta gorrotoz jarraitu gura nai dabela euren alperreko Euskera Batua aurrrera eroan nairik».

LATIEGI'tar Bixente

DIKTADURARIK

(E.L.A. - S.T.V.ko langileei maitasun indarrez)

Oporrak igarota gero, neure erritxora eldukeran, emen aurkitu naz atzeraturiko DEIA deritxon egunkari batzuekin.

Gutziz interesgarri ikusi dodaz eta atsegingarri izan yat eurak irakurtea. Batez ere gure langilleen batasunaren alde ekitanean diñarduen lanak.

Baña jakiña, kontuz ibilli bear gara eta zur ta ardutatsu, gure biotz oneko E.L.A. - S.T.V.'ko langilleak lar errezegi atzipetuak izan ez daitezcan.

* * *

Urrillaren bigarreneko DEIA'n, irugarren orrian, LA UNIDAD SINDICAL izenburuaz, UZTURRE jaunaren idazkia irakurri dot, eta uste dot askorentzako onuragarri izango zala.

Eta berak, idazki orretan diñoanari egoki etorri leikiola'ta, ona emen nik neure aldetik, E.L.A.-S.T.V.'ko euskaldun zareen langilleoi, asmo onez eta gogo beroz esan nai deusuedana.

UZURRE jaunak, beste egi sakon askoren artean, auxe diñosku: «Puede decirse que, fieles a sus principios y a las contradicciones del movimiento obrero vasco, E.L.A.-S.T.V. es enemigo irreconciliable de todo despotismo moral o colectivo, de toda dictadura, comprendida la dictadura del proletariado».

Nik azkenengo esanaldi oneri «comprendida la dictadura del proletariado» goratu ta erantzun gura neuskio.

* * *

Orain urte batzuk an agertu zan, eta luzaro jarraitu eban, Gernikako trenaren geltokian, erri barrurantz sartukeran dagoan ate inguruan, auxe idazkia, dana letra negosietan idatzia: «LANGILLEEN DIKTADURAREN ALDE EUSKAL IRAULTZARAKO ALDERDIA».

Urtekeran, gizonetzko bik geratu ninduen esanaz: Por favor ¿nos puede atender un momento? —Si no es más que para un momento... Vds. dirán. —Sabe Vd. el vasco? —Pues sí. —¿Podría traducirnos lo que dice esta inscripción?

Eta nik erderatukeran an euskeraz idatzita egoana, burutsik eta korbata barik etorrenak esan eutsantxapeldun eta korbatahunari. —«Esto sí que es un contrasentido; que hemos tenido que soportar 40 años de dictadura y ahora nos quieren implantar otra dictadura; pero en qué quedamos».

* * *

Aldendukeran, neure barruan iñardu neban bertokuak izan baziran, sabe Vd. el vascoence esango eustien, baña sabe Vd. el vasco esakeran, uste neban erbestekuak izango zirala.

Dana dala, bertokuak naiz erbesteko edo kanpotarrak, ez eutsoen oneretzi an idatzita egoanari.

Andik gerora, barriro etxera eldukeran, gaur egun larogeita amalau urte daukazan antxiñako euskaldun abertzale zar batek, ta ze barri Gernika aldetik esanaz, agurtu nindun.

Alkar izketa laburtxo batean aituten emon neutson, Gernikako tren geltokitik urtekeran jazo izan yatana. Eta ona emen beren erantzuna: EZ DOGU NAI EZETARKO DIKTADURARIK, baña diktaduraren bat etortekotan, betor zapatatun diktadurea, ta ez abarketadunena

* * *

Zer dala'ta ori? Zapatadun diktadoreak ez dira iñoiz arduratuten abarketadunen estutasun ta larrialdiakin; abarketadun diktadoreak geiago arduratuko litzakez goi - mallan barik, beko bizitza - mallan bizi diranakin. Eta ona emen bere bigarren erantzuna:

Munduko aundiki diran zapatadun diktadoreak, gizon okerrak, gaiztoak dira, edo beintzat nik gaiztotzat daukadazanak; baña egunen baten damutu leitekez, damutasun eta zuzenbiderako gaitasun edo kapazidatea badaukelako; eurak ondo dakie txarto jokatzan dabena, eta orrexegaitik daukadaz gizon gaiztotzat.

Baña besteak, abarketadun diktadoreak, uste dabe ze, eurak beti zuzen jokatzan dabela, beti erri maitasunez diarduela, ta eztauke damutasun da zuzen biderako orrenbesteko kapazidaderik, naita beste diktadoreen besteko kirtenkeri erdi bardiñak egin, eta zapalketa erdi bardiñak erabilli.

Orrexegaitik diñot nik beti: EZ DOGU NAI EZETARIKO DIKTADURARIK, ez kultura geiago daukenena, ez kultura gitxiagoko diran diktadoren. DEMOKRAZIA, era guztietako diktadoreen aurka dagon «erri egoera ta erri bizitza» bat dogu.

Eta azkenez, E.L.A.-S.T.V.ko irakurle maite, ez zaitez arritu entzukan, larogeita amalau urteko euskaldun abertzale au, ezkondu aurretik eta ezkondata gero be, eukazan beste bizimodu artean, beren erriko abarketero txiro bat izan zala entzukan, ez zaitez arritu.

AMUTXATEGI'tar ANDONI

CUBA BARRUTIK (XIV)

EROSGAIK

Kubatarrak ezin dabe nai dabena erosi. Beraz, bizi nai izan ezker, sarritan izkutuka erosten ibilli bearra izaten dabe. Joko onetan geien bat erosten dabezan gauzak dira: janaria, edaria eta janzkiak. Oneitatik aparte, irratiak eta magnetofoiak be erosi nai izaten dabezala esan bearra dago.

ZERGAITIK IZKUTUKA?

Geien baten gose diralako, edo Estaduak illerako emoten dautsena oso gitxi izaten dalako. Edari kontuan, ura ez dan beste zerbait edatearren. Janzkiekaz be beste ainbeste gertatzen dala esan bearta.

Irratiak eta magnetofoiak erosteak, oster, beste azalpen bat dau: griña bat dala dirudi: kubatarrei abestiak eta dantzak oso atsegin jakez. Eta onetarako, jan ez da be, soia eta dantza ugari dabe.

JAN - EDARI ARLOA:

Kubatar bakoitzaren ja - edanerako Estaduan egiten dauan banatzea auxa da: *iru libra okela*, egon dagonean; ez da begiratzen ze okela mota dan: bakoitzari tokatzen jakona: txalkia, txarrikia, ollokia...

Kilo bat indaba, iru libra azukre, 100 gramo akeita, esne kondensada ontzi bi, litro erdi orio edo libra bat koipe, tomate ontzi bi, sei libra arroz, eta abar labor bat.

Eguneko esnea, adibidez, umeentzat, gaixoentzat eta atso - agurentzat bakarrik saltzen da.

Janari oneitatik aparte, besteak bakoitzak aal dauan neurrian erosteko eskubidea dabe. Baiña eskubidea izan arren, sarritan salgai izan ez dira egiten, adibidez: patatak, guriña, gatzatua, iderrak, arraiña, tomateak, letxugak, piperrak, eta abar...

Salgai be ez dirala izaten ulertzeko, adibide kaxkar batzuk jarriko ditut: kipulak eta berakatzak urteetan ikusi be egin barik egon dira kubatarrak; azken aldi onetan, bi edo iru illebeterik iru illebetera bakoitzak libra bat jasotzea lortu izan dabee Tropikoetan dagozan frutarik onetarikoak bonba eta piña dira eta, oster, ikusi be ez dabez egiten. Sagarrak, madariak, maatsa eta mertxikak Castroren iraultzak irunsi ebazan, ostean ez dira ikusi be egiten - eta. Lukainka, gaztaia, pernilla eta solomoa ia zer diran be ez dakie, ikusi be ez dabez egiten - eta.

JANZKI ETA OINETAKOAK

Azken urteonetan oneik erosteko era gaiago izan dabe, naiz eta diruaren urritasunagaitik dandan itzi bear. Oraindik oraintsurarte, oinetako batzuk, praka bat, arkondara bi, galtzerdi bitzuk eta barruko batzuk baiño geiagorik ez eben artzen.

Esan euskuenetik, galtzontzillo bi artzen eban ezin ei eban jugoirik artu, edo eta andrazko braga bi artu ezker, ezin ei eban bularrerakorik artu, eta abar...

Egoera onen eragiñez, jendeak izkutuka erosketak egitera beartua ikusten eben burua. Baiña onetaz asi baiño leen, jarraitu daigun beste adibide batzuk jartzen:

Nork ez daki Cubak tabakoa saltzen dauana? Kubatarrak, oster, astean pekete bat baiño ezin eben erosi bakoitzak. Norbaitek geiago nai izan ezker, % 400 garestiako ordainduta lortzen eban.

Norberaren garbikuzirako, bakoitzak jabo bat baiño ez eban. Emengo «Tinbo» jaboaren tankera-koa, baiña usai oso txarrekoa.

Edarietan, «ron» erosi egikeen, naiz eta aal oso gitxik izan: botella bakoitzak 12 peso balio ebazan, eta au egun bat eta erdiko soldata zan.

Garagardoa erosteko egunak inauteri egunak ziran. Besteotan ez zan ikusi be egiten. Onen ordeztz piña - ura, limonada eta coca - colaren antzerako zerbait saltzen da.

Janari - edarietako izkutuko sal - erosketan kostatzen zana baiño lau bider geiago kobratzen zan.

IZKUTUKO SALTZAILE NAGUSIAK:

Eztabaida barik, onetan buru eta nagusi errusiatarrak ziran. Nait eta izparringietan anaitasunik aundinean laguntzen ari jakezala irakurri, lapurretari- aundienak oneixek egiten eutseezan kubatarrei. Urrengo bulgariarrak aitatu bearko.

Kanpotarrak, egia esan, tekniko lez ara joanak, bear genduan beste eta geiago erosteko era izaten gendun, eta, beraz izkutuko salmentak be egiten genduzan Ango jendearen egoera ikusirik nik neuk erositako salneurrian emoten neutsezan, eta sarritan oparitu be bai Siñisteko ikusi egin bear litzake.

Janari edarien urrengo, irrati, aizegailu eta magnetofoiak ziran. Oneitarikoak lortzeko, urrezko eratzunak belarrietakoak, medallak eta abar eskeintzen eutzuezan. Adibidez 18 kilateko urrezko eskubitorreko bat ezkeintzen eutzuen magnetofoi bat praka bat eta niki baten ordeztz.

PIRU LEGARRETA

Euskalerritik Mundura begira

ANDALUZI

Gauza mingarri asko duguz il ontan munduan: Malbinetan odola, eta odola, baita're, Libano'n eta antziñako Mesopotami zarraren ertzetan. Euskalerritik so-egiñik ordea, Andaluzi'n ospatu - berriak diran auteskundeek dabe garrantzi berezia.

Andaluzi'k eta Euskalerrriak izan dabez aspaldidanez arremant estuak. Ta au esatean ez dodaz gogoan Andaluzi Kalifa arabitarren mendean egon zanean ango gidariek eta Euskalerrrikoek izan ebezan borrokak. Arabiarrek eta naparrek jasan bear izan ebezan borroka aiek beste euskaldunek baiño geiago. Baiña laister egin ziran Andaluzi'ko arabitarren eta euskaldunen artean pakeak. Bai al dakizu Kordoba'n, sarritan, Kalifaren emaztea euskaldun bat, Naparroa'ko printzesa bat, izaten zala? Aro artan, Andaluzi'ko Kalifek ez baiña, Leon'go Errege bisigot dana - zanzapalleak izan ziran bereiziki euskotarron etsairik amorratuenak.

Amerika idoro ezkerotik andaluziarren eta euskotarren artean izandako adiskidetasuna gura dot emen oroitu. Ameriketarako eta Ameriketatik joan - etorrirako kai bakarrak, erregeen aginduz, Sebilla aurrena eta gero Kadiz izan ziran. Ori zala n ta, salerosle euskotar asko joan zan bi uri aundi aietara, eta an ipiñi ebezan euren bizi - tokiak.

Gutziz era onean, maitekiro, eta adiskidetasun osoan artuak izan ziran an euskotar aiek.

* * *

Andaluzi! Neskartil beltzaranak, ijito - itxurako gizaseme mearrak, kitarra, abesti arabikoiak eta dantz! Ori datorkigu burura Andalu-

zi'ren izena entzuterakoan. Baiñan ori ez da Andaluzi.

Andaluzi gosea da. Lur aberatsean gose gorria. Andaluzi'ko aberastasun guzia eun edo berreum sendiren eskuetan bait dago. Errian gosez bizi da.

«Nere eliztar geienen eguneroko janaria auxe izaten da (esan eustan bein Jaen'en uri artako San Bartolome'ko parrokuak): goizean ogi - pusketa bat, oligo gordiñez igurtzia; eguerdian ori bera tipula batekin; atsalde - erdian, oligo gordiñez igurtzitako ogi - pusketa berriro; eta gauean tomate batekin oligo gordiñez igurtzitako ogi - pusketa!». «Gizona (esan neutsan), ez al da ori gaitzpelak jota danak biriketatik gaixo egoteko naikoa?». «Ala dagoz», erantzun eustan.

* * *

Giro ortan izan bear dabe ikusiak Andaluzi'ko Auteskundeak. Txirotasun osoa, lanik eza, gaixotasun eta oñazea, gosea... Ori da Andaluzi'n jendearen giroa. Giro ortan ez da arritzekoa auteskundeak ezkertiarrek irabazi izatea. Komunistek ez irabazia da, izatekotan, arritzeko gauza.

Zalantzarik gabe, izugarrisko gaitza egin dautse Europa'ko Alderdi Komunistei, komunismoak, menpean dabezan lurraldeetan, egindako zitalkeriek. Bestela, gaur eguneko Euro - Komunismoaren izkera legun goxoa entzunaz gero, PCE'ri emango eutsoen autarkia Andaluzi'ko jendeek. Baiña Polonia eben andaluziarrek gogoan, eta alperrik izan ziran Carrillo'ren itzaldi xamurrak. Gaur ez dau komunismoak siñisgarritasunik, «Irugarren Mudua» esaten yakon Ludiaren zati ortan ezik.

«Irugarren Munduan», eta Euzkadi'n! Europa osoan komunismuari muzin egiten yakon uean, emen, komunismorik gogorrenara jo bait dabe gure ezkertiar iraultzariek. Au esatean ETA dot gogoan —ETA bakarra, ETA'ren adar guztiak ETA bat besterik ez bait dira—, eta ETA'k politikarako eratu dauzan bi alderdiak HB, eta batez ere, EE.

* * *

AP'ek eta UCD'k irabazi - eza ez da gauza arrigarria, alderdi oiek Andaluzi'ko berreun sendi aberats aien alderdiak bait dira. Goseak dagonak ez daikeo bazka kentzen dautsonari autarkirik eman.

Eskumatarrei eta komunistei uko egiñik, PSOE'ri eman dautsoz Andaluzi'k autarkiak, eta ori egitean..., a! nolako lana ezarri dautsen psoetarrei lepo-gaiñean.

Andaluzi'ko arazo bakarra gosea da; txirotasuna. Ta txirotasun ori ezerezteko, ango aberastan banaketa zuzenago bat egin bear da. Aberatsen aurkako borroka, ordea, oso borroka zaila izaten da. Andaluzi'ko aberatsak berriz oso aberatsak dira; asko dabe; Andaluzi osoa dabe berena.

Jainkoak eman beioe psoetarrei aberastan banatze ori, era zuzenean egiteko bearrezkoa izango daben laguntza guzia, bestela urrengo auteskundeetan komunistek irabaziko bait dabez an auteskundeak.

A!, eta kontuz! Orrelako zerbait getatu daiteke Euzkadi'n ere emen jendea lanik gabe gelditzen ba'da. Ta orixe gura dabe, ain zuzen, emengo komunist ezkertiar guztiek: jendea lanik gabe gelditzea!, Euzkadi'n komunismoaren aldeko iraultza giroa sortu daiten.

LATIEGI'tar BIXENTE

UDABARRIKO JAZOERA BATZUK

EPAILLA:

—Bilboko Udalak, 1981 urtea, milloi bat peze-
ta gaiñezkogaz amaitu dau.

—Ziprien Aberbide, «Xalbador» sariaren irabaz-
lea, Benaparroa'koa da, abadea, eta Uharte Gara-
zi'n parroku dago: naiz ta españarra izan ez bera
be naparra dala diño eta Iruña'n, bere errian aurki-
tzen dala, Euska, - irakurleak, gauza labur eta erre-
zak bear dituala; ezpabere ez dauala iñoiz irakurri-
ko.

—Jesus M. Carrion, euskaldun barria, Napa-
rroa'ko Saldise'n maisu izana ta Arrasate'ko kate-
dratikuak, HABE'ri: euskera Isalbatzeko, euskal-
dun, erdaldun eta elebidun taldeak bear; bestela gu-
rasoek ezin umeen izkuntza ulertu; umeek jakin ez
zertarako dan gurasoekin itz egiteko, jolasteko, ba-
lio ez dauan izkuntza

JORRAILLA:

—«Lankide Aurrezkia»ren azterpen baten ondo-
rengoa: Euzkadi'n, al dogun baiño aundikiroago
bizi garala. Lanik eza amaitzeko, geure erosotasu-
nak be gitxiagotu bearrean gagoz.

—Lekatotz'ko ikastetxeko aldizkariak: 1980-
81'ko ikasurtetik, «EGB» (Oiñarrizko Eiketa Oro-
korrean), 6-7 ta 8'garren maillakoai, euskera ira-
kaste asi ziran. (Lekarotz', kaputxioñoen ikaste-
txea, guda - aurrean, euskal - ikastetxe ospetsua
zan. Bertako irakasle asko zigortu ta sakabana-
tuak, eta euskera isildua izan zan gudatean. Geroko
bertako ikasle entzutetsu bat, Jaurlearitzako Aolku-
lari dan, Rtxenike jauna.

—Larrauri, Gasteiz-ko gotzaiñak, Aita Santua-
gaz egon ondoren: Euskalerrri'ko gotzaiñak, Erro-
ma'n itxurea pixkat galduta izan dogu; Aita Santuak,
Euskalerrri'ko indarkeria, urretik jarraitzen dau.

ORILLA:

—5'ean, eguastean, Paskual Mujika, Lemoiz'ko
Egitamuaren Burua, tiroz il dabela jakitean, darda-
rea; ETA, Euzko Jaurlearitza ta Erakundeen aurka,
bete - betean.

Barikuan, agerraldi isilla Bilbo'n: DEMOKRA-
TZIA ETA ERAKUNDEAK BETI, AGINTE-
KERIA ETA GOGORKERIA INOIZ ERE EZ»
kartelagaz. Lendakariak: «Iltzaile talde batek, bere
naia ankerkeriz ezarri gura».—Uriarte, Laguntzaile
Gotzaiñak be, agerraldian eskuartzen dau: Isiltzea,
une onetan, ez da kristiñaua; gizona jokatzen da-
nean, antxe izango gara Bizkai'ko gotzaiñak.

—8'an «Euskadiko Udalen Elkartea» sortzen da
Gernika'n, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa ta Napa-
rroaren artean.

—13'an, mutil gazte napar bi il dira Tafalla on-
doan, euren autoan eroezan 12 kilo «goma 2»k es-
tanda eginda.

—Iberduero'k, Lemoniz geratzea erabagi,
«oraingo egoerea gaintitu arte».

—10'an: legorteak, bereak egiten diardu: 50 urte
dالاتik, ez da olango Udabarri legorrik ezagutu.
Naparroa'ko Erribera'n, eta Errioxa'n, gariak - eta,
% 70 galbidean. Erreka ta urtegiak agortzen alde
guztietan.

—16'an, Portugaleta'n, «Ibilaldia» euskeraren al-
de. Bertara joan zan Lendakariari, talde batek, pre-
soak falta zirala esaten, deadarka jarraitzen dautso.
Bere erantzuna, «baita illak be»

—«Korrika», 22'tik 30'era izango da: «Herriaren
Erantzuna Euskararen alde». EAJ', «Korrika» ren
aurka? oeskeraren estalkizz bere elburu politikoak
darabillazala, igaz ikusi zanez: mezua galdu, eta
euskeragaz zer - ikusirik ez eban beste bat irakurri.

—AEK, «Korrika»ren eratzailleak, EAJ eta «Tal-
dea» izenagaz idatzi dautsenai erantzun: ez-diranak
diñoezela eta euren elburu nagusia beintzat, euskera
dala. Ez dabilzala, erakundeen aurka. HABE, Euz-
ko Jaurlearitzaren menpe egon arren, zer dala-ta,
AEK'ra, ete doa HABE'ra baiño 15 bider ikasle
geiago?

—EAJ nastatzeko, aspaldi Madril'dik sortu zan
asmo baltzak, noraiñoko zusterak bota eta arra-
kaltzeak egin ete ditu gure Lurrean? (Estitxu'ren
«Agur Maria2 gogoratu: «...zer gertatzen da gure
Errian?...

—Epaillan, Gasteiz'en, goizaldean, San Migel
eleiza - kanpoaldetik lurrera jaurti eben «Ama Birji-
ña Zuria»ren irudia, konpondua izan da,

—Gernika'n, erregeari, Batzar - Etxean eginda-
ko zalaparteagaitik kartzelan egozan, HB'koak,
multea ordainduta EE'ak atara ditu. HB'koek: gu
askatzeaz, EE'ak, Roson'eri pisu astuna kendu
dautso. Eta espetxea, politika egiteko era bat da.

—Ffrantzia'ko gobernu sozialisteak, euskal - de-
partamendua ukatuaz Iparralde'ko gure anian
itxaropenak galduazo ditu: ikasteko, lana egiteko,
gazteek kanpora joan bear; gazteek gitxitu, zarrak
geitu. Euskerea asko galdu da; gau - eskolen bidez
euskaldundu nai baiña ain gitxi dira...

MAITENA'k

IPUIN - SARIKETA (Euskerazaleak)

Ona emen gure epai-maikoen erabagia:

LENENGO SARIA: «Maitasun-egintza» idaz-lanari. 25.000 pezeta. Irabazlea, Aurre-Apr aiz'tar Baelendin.

BIGARREN SARIA: «Asaba zaarrena geurea dogu» idaz-lanari. 20.000 pezeta. Irabazlea, Penades eta Bilbao'tar Josu.

IRUGARREN SARIA: «Martintxu'ren ezin-esana» idaz-lanari. 15.000 pezeta. Irabazlea, Batiz'tar Bingen.

ZER'en zenbaki onetan agertzen doguz iru lan sarituak. Zoriona irabazleentzat!

MAITASUN - EGINTZA (1.º SARIA)

Aita! Zereko zerean, zera ikusi dot zertuta, andik zertu nazanean.

—Zer dok berbeta txatxu ori, txotxo? Egin egik berba argi, esan eutson Lezaburu'ko Imanoltxu'ri, aitak, albista areaz, estutasunez, etxera eldu izan zanean.

—Bai, aita, Zera ikusi dot antxe, basoko sasi-artean, zertuta.

—Zer dok zera zertuta? Artu egik arnasea nasai ta esan egidak, argi, zer ikusi izan doan, olango ike-rea artzeko.

—Gizon bat ikusi dot, aita, zertuta, ilda, odola dariola.

—Gizona etzoan izango.

—Bai, aita, gizona izan da...

Gaioazan, ba, ta ikusi yagiagun zer dan zereko zer ori!

Illuntzea zan eta egoaldi ona egoan. Artu eban makillea, aitak, eta txakurra lagun ebela abiau ziran, basorantz, aita-semeak.

—Zigur ago gizona izan dana, Imanol? Txakur-
rren bat-edo ez dok izango?

—Ez, aita, ez. Gizona da eta zertuta dago.

—Zer dok zertuta? Ondo egin egik berba.

—Zertuta, ilda esan gura dot, aita. Ilda dagoan antza artu izan dautzat, nik neuk, beintzat, zertuta dago-ta.

—Ostera be, zertuta?

Ilda, aita, ilda. Ikusko dozu bertara eldu gaitenezanean.

—Etxok egiten izan arnasotsik-edo?

—Ez dakit. Ikusi izan dodanean arrapaladan asi naz, ikaratu egin izan naz-eta.

—Zetan izan az basoan, ba?

—Bidegarro-abiea daukat eta txorik-kumak jantzita dagozan ikusten.

—Esaten dauat, ba, txori-kumeri iges egiten isteko. Ez dok il ez kaiolan sartu bear txoririk. Txoriak

eta gizonak azke biziteko egin izan yoazan, Jainkoak. Pozgarriak izan oi dozak bidegarro ta enpaidden txorrotxioak, udabarriko goiz-illuntzetan, basoan bizi gareanontzat. Kaiolan dagoan txoriaren txoriaren abestiak, barriz, txorrotxio alai barik saminez dagoanaren erosta kaden eta ituna yirudik.

—Gizonak be sartzen dituez, ba, aita, baitegietan. Zegaitik, aita, gizon batzuk, beste gizon batzuk eroan daroez, ba, espexera?...

—Gaiztoak, bai, eroan bear izaten dozak espexera, okerririk barrero egin ez dagien; baiña errubakoak bere sarri euki izan dituez baitegietan.

—Mendozte'ko Patxi ta biok bere baitegian egonak zarie, zeuok asaten dauskuzenez, okerririk egin ezarren be.

—Esan dauat, ba, errubagakoak be sarri euki izan dituezala espexetan. Gu, geu, Euskalerrria'ren alde jokatu izan gendualako euki izan genduezan espexean.

—Kaltegarri ete-da, ba, aita, geure aberriaren alde ekitea?

—Orrentzat, eurontzat, menpean euki gura gaituezanentzat, bai, Imanoltxu. Euskalerrriak bere eskuko, jarei, izan gura yok, antxiñako aldietan lez, eta eskubide osoa yoagun azkatasunaren alde jokatzea ogen aundia izan, menperatzaille ankerrentzat.

—Aita. Zera ez dautzut esan: An zertuta ikusi izan dodan gizonak suizkilñoa (pistolea) daukala, alboan, eta txakur zuri aundia egon da bere aldamentean, intzirika, eta agiñak erakutsi dautzat, urruma egin-da. Ikaratu egin naz eta alde agin dot, arrapaladan, andik.

—Lazter ikusiko yoagu, ba zertuta ikusi izan doan zer ori zer dan.

Biskor, euren txakurra urreratu izan ekioen, eurak baiño leen, txakurrak oi dabenez, sastraka-artean bertanbera itxita egoan gizonaren ingurura eta beingoan biurtu izan ekioen, aita-semeeri, antxe,

SARIKETA

urream, era txarrean ikusi ebala zeozer eta leen bait leen eldu daitezala, ara, aditzen emon guraz.

Imanoltxu'k esandako ingurura eldu izan ziranean, txakur andi bat ikusi izan eben leenengo ta erremuxkadaka asi ekioen (yaken) amurrutu-ta bai'legoan. Burruka asi ziran ugazaba zaintzen egoan txakurra ta zertzan edo zer etzan ikusten eldu izan ziranen txakurra eta nekez banandu ebezan. Ondo esanean baretu eben txakur asarrea ta bere ugazabari mezede egiten eldu izan zirala igarririk, berak, txakurak, zuzendu ebazan bere ugazaba era txarrean egoan lekura.

A, gizon a, era tamalgarri aretan ikusirik, arritu egin zan Lezaburu'ko Mikel. Il-da egoala uste zatekean, baiña arnasa apurren bat ba-ebala igarririk bereala asi ekion, ardura andiz, zauriak lotzen.

—Imanol, joadi etxera, arrapaladan, eta zaldia txalmatzeko esan egiok amari, ta ekarri egik onaxe, leen bait leen, au, gizon au, geurera eroan dagikegun. Bizkorra az i, ta lazter egingo dok emendik etxerakoa... Iñoz ariñik egin izan ba-dok, egin egik oraintxe, ba.

—Geurera eroan bear dogu, ala, aita?

—Bai, mutil, geurera.

—Joadi bizkor, txorkatilletan egoak bai'loazan: Emen azalakoan, an, eta an azalakoan emen.

Ziorkadaz eginda-edo, zauriz beterik, maillaturik eta ubeldu-ta eukan gorputz guztia eta suiskilñoz egindako zauritxar bi bata bularrean eta bestea ezkerreko saiatseanm odola erioela. Urratu eban soiñako arkondarea ta lotu eutsozan, zelan bait, zauriak, guztiz odol-ustu ez eiten, Imanoltxu zaldia-
ren billa zan artean.

«Au dok bai, au, gizonari egiteko bearra» —esan eban, berekautan, Lezaburu'ko jaunak, gizon zauritu a egoara negarri atan ikusita—. «Ez dago onetarako eskubiderik».

Imanoltxuk, etxera elduaz batera, arnasoska, «atera zaldia» esan eutson amari. Atera zaldia ta ezarri txalmea, ama, zereko zerera joan bear dot zerearen billa-ta.

—Zelako zereko zerera, ume?

—Bai, ama, an zerean gizon bat dago zertu-ta eta aitak esan daust zaldia eroateko, bizkor, erio-suar. Aixex, gixon aixex, geurera ekarteko...

—Zelako gizona edo zer diñoztak?

—Bai, ama, gizon bat dago an, Bizkarratxeta'ko basoan, sastraka-artean, azeri-lezearen ondoan, zertuta; ilda-edo...

—Josu, ume! Ez egidak esan olangorik.

—Bai, ama, bai. Antxe dago...

Zaldira igoten lagundu eutson, eta, «egin egik Aitearen eta joadi, ba, bizkor, baiña jausi bagarik» esan eta bialdu eban, amak, zer jazoten ete-zan ol-dozkor eta artega geraturik.

Ordulaurenean egin eban, Imanoltxu'k, etxerakoa. Aitak, ordurako, leenengo osakuntzak aal eban eran egin-da gertu eukan bizirik zan antzik ez eukan gizon a. Aalik miñik gitxien egiteko eran jarri eben zaldia-
ren bizkarrean eta abiau ziran, etxerantz.

Lantzean urruma tamalgarri bat oguzten eban zaurituak, baiña ez eukan ezetariko bizi-ezagarri-
rik, eukan arnasa apurra baiño.

«Bidean ilgo ete-yakuk? —Esan eban Lezaburu'k—. Eta il ba'legi-
guk zelan egiztau onen eriotzearen barri?»

«Daitela Jainkoak gura dauana, gizon au bertabera istea kristiñaua ez izatea ezeze, gizona be ez izatea litzakek-eta. Yaroagun, Imanol, lenbait-leen, etxera, bear ba-da sendatu egingo dok-eta».

—Gure poza, aita, sendatu ba'ledi.

—Alegiñak egingo yautsaguzak eta, ikusiko yoagu.

Imanoltxu; au dala-ta agoko arnasarik ez dok iñun bere aterako, gero. Jakin ba'legiek jakin, norbaitzuk, baitegian sartuko nendukie, betiko, ta aita barik geratuko intzake.

—Ez, aita, ez dot iñun bere ezer aitatu-
ko, eze-gaitik bere. Ez-ta, ez-ta...

Imanoltxuk esan eutzanaz, ezer garbirik etzekian etxeko andreak, baiña emakume maratza zannenkerok, gerturik eukazan oge, ur epel, lotzai-
kiñak eta abar, norbait zauritua-edo na'lekarren, leen bait leen lagundu aal izateko.

Zaldia itxi etarteko atondoan eta bizirik ala ilda egoan errez igarri ez egikeon gizon aundia sorbal-
dan ebala zenarra etxera sartu izan zanean, atsekabezko zotin samiña oguzi eban, Mari'k, Mikel'e-
ren emazteak.

Ba-ekien, aiko-maikoetan ibilli bagarik, zirt edo zart egin bearra egoana, gizona esku-artean ilda geratu ez ba'zegieken, odol-ustuta eta otz-otz egin-
da egoan ba-ta.

Lenengo, ur epelaz garbitu eta ugorkiaz (alko-
laz) kutsua kendu eutsen, zaurieri, ta miesa garbiakaz lotu. Edari zuzpergarri apur bat emon eutsoen eda-
ten, adoretu zeiten, eta ogean ezarri eben, maiteta-
sunez, etxekoa bai'litzan.

Mari zaurituaren gorputz auldua konortera ekarteko alegiñak egiten geratu izan zan bitartean, osalariaren billa joan zan, Mikel, eta ordu erdi bai-
ño leen biurtu izan zan, osalariagaz. Arritu egin zan, osalaria, egoera aretan gizona ikusi izan eba-
nean eta buruari eragin eutson, ezkor. Arakatu eban ondo ta kutsuen aurkako ta beste osakai zuz-
pergarri batzuk txertatu eutsozan eta berunbil bi atera soiñetik.

Gau guztian ez eban eban zirkiñik egin izan zaurituak, baiña, biamonean, bizirik atera aal izan-

go eben uste bagarik zirala, zirkin egiten asi izan zan eta, apurka-apurka, honortera etorten.

Iru-lau egunean ez eban itzik egiteko adorerik izan, baiña, alakoen baten, asi izan ekioen astiro-astiro itz banaka batzuk lorrintzen.

Burua argitu ekionean, «Ene! nun nago ni...? Nortzuk zarie?» —esan eban begiak zabal-zabal egiñik, oge-ingurura zalantzaz begiratzen ebala—.

«Ez estutu, gizona, esku onetan zagoz-da» —esan eutsan, Mikel'ek—.

Baretu zan gizona, aren zintso egindako itzak etxeko jaunagandik entzun izan zituanean.

Nai, bere txakurra, ez ekion aldentzen bere aldamenetik eta antxe eukan, oge-ondoan etzun-da, jabetan, ain maite eban ugazabari iñok kalterik egin ez egion.

Egunerik-egunera yoian sendatzen arrotza ta pozik ziran Lezaburu'koak. Imanoltxu'k be zintzo bete eban aitak esan eutsona: Iñori be-iñori be ez eutson esan, ba, euren eukan arrotzaren barri-rik.

Aren egoera txarrean aurkitu eta etxean eukan gizona nungoa zatekean jakin-guraz erretan egozan, zaurituaren ongilleak, baiña itaundu baiño egokiago eritxoen ber-berak esanarte itxaron.

Jagiteko bestean sendatu izan zanean, eskerrak egin eutsezan bere engileeri ta aulan asi izan ekioen berbetan, bere txakurrari xera egiten eutsola: «Onezkero, nor nazan eta zer jazo izan ekidan esan bearrean naukazue, bizia zor dautsuedanezkero». (Arpegira begira-begira eukan bere txakur andia, etxekoeri itz egiten ziarduan bitartean). «Ni, neu, Ibergaintarra nozue. Ibergain'go Zelai basetxekoa. Jose da nire izena».

«Amaika ezbear Euskalerrri'ra ekarri euskuzan gudu ankerrak gure erria menperatu ebanean (uste izango dozue zer dala-ta) baitegian sartu nenduen eta ogetamar urteko zigorra leporatu».

«Menpetzaillearen jostailu gintzazan, ba, ta sei urte egin nituanean, ez dakit zelako legea zala-ta, askatu egin nenduen. Baiña ez guztiz askatu, muti-koak txoria erabilli daroenez lokarriaz anka lotu-ta baiño. Astero aurkeztu bear izaten neban, ba, txapel-okerrakana...»

«Ni errian izatea begi onez ez eben ikusten zital batzuk eta bekaitzez begiratzen eusten eta sarri zematu bere egin izan nenduen. Nik neuk ez neutsen jaramonik egiten, baiña, errikalte txoriburu alako areeri».

«Gorrotz ebizan, ba, nire aurka, naiz-ta on baiño egin izan ez, nik neuk, eureri, sarri».

«Orain illebeta-edo (ez dakit zenbat denpora daiteken be) arrats baten, etxerantz niñoala, illunaz babesturik buru-buruan jo nenduen makilleaz eta konorte bagarik itxi. Erdi konortera nintzanean

gaizkilleen eskuetan nintzan eta makilla-kada itzelak emonez tatarrez, narraz, ibilli nenduen luzaro. «Oindiño bere bizirik yagok, zantar au? —esan eutsen bata besteari— ta oraintze amaituko yoagu» esanaz, suizkilñoaz erauzi bi egin eustazan areitari-ko batek: Iltzat laga nenduen, ba, Emendik aurrera-koa zeuok dakizue nik baiño obeto...»

—Eta, ez dakizu nortzuk datekezan ziztrin eraille areik? —Egin eutson Mikel'ek.

—Zigurtasun guztiz, ez. Baiña, bai, uste dot nortzuk eta nok aginduta izan daitekezan. Baiña ezin naiteke ezetan asi, oraingo sasi-agintariakaz galtzen urtengo neuke-ta.

Jainkoak parka dagioela, nik neuk ez daukat iñorentzat gorrotorik ez gaitz egiteko asmurik-eta.

«Auxe bai, ba-dala, gitxi-gitxi lakoxe gizon zintzoa» —esan eban, berekautan, Mari'k—.

—Bai, gizona —geitu eban Mikel'ek— bai, gizona, gorrotz itsuturik dabillanak ez dauko, egundo be bakerik, bere biotzean.

—Gurean larri izango dira; ez dakie, ba, zer jazo eikedan. Joango ba'zintzaz, Mikel, poztu ez dala baretu bere egingo litzakez bizi nazala jakin dagienean.

—Berealaxe urtengo dot, zaldian, eta beingoan elduko naz zuenera, ogei aneurkin inguru baiño ez da emendik arako bidea-ta. Ganera, zear-bidez joango naz, mendiz, eta lazter naz an.

Mikel euren ostatariarenera eldu izan zanean, zurtz egin eben aren emazte ta seme-alabatxuak, albista txarren bat eroatselakoan, baiña beingoan baretu ziran etxeko jauna ondo zala jakinazo eutse-anean.

Urrengo goizean, Jose'ren emaztea eldu zan, nebea lagun ebala, Lezaburu'ra, ta eroan eben ezbear larrietatik zadorkiro urtendako gizon nekatua.

Agur egikera, «zeuokaitik naukazue bizirik —esan eutsen, Jose'k— bere ongilleeri. Bizia sor dautsuet eta gogoan izango dot zenon egiñen maitekorra. Nor naiteken ez nungoa ez dozue jakin, ez eta arerioa ala adiskidea naitekeanik bere eta ardu-ara aundiz jazo ya zaindu izan nozue. Zeuok izan ez ba'zintzazen, ez negikean, nik neuk, ezelan bere bizirik urten. Sastraka-arte atan ilgo nintzan, zigur. Agur, ba, lazterarte; eta, ondo ordaindu gura neuskizue, nigaz egin izan dozuen maitetasunezko egin-tza astueziña».

Lezaburu'koak txiroak ziran; bizi ziran etxea be iñorena eben, eta bear sendo egin-da aukera larregi bagarik bizi ziranak: Urkoaganako maitetasunez aberatsak, baiña. Eta, maitekuntza utsez egin izan eben era txarrean bertan-bera itxita baso-artean aurkitu izan eben gizon zaurituaz egin eben guztia bere.

SARIKETA

Andik ille bira, gitxien uste ebenean, guztiz sendatu-ta agertu izan ekioen, Jose, Lezaburu'ra: egundoko pozez onartu eben bere ongilleak. Etxan, barriz, esku-utsik agertu. Aldekeran esan izan eutsenez, gogoan eukan, ba, eukitekoa zan izan be-ta, etxe atakoak berari egin izan eutsoen maitasun-egintza ta bizi ziran etxe-bazterra erosteko lain diru emon izan eutsen ordaingarri.

«Ez, gizona, guk etzenduguzan zaindu izan diruagaitik ez beste ezetariko gaizalekeriagaitik, bearrizanean daitenari mezede egin bagarik ezin itxi dairekiolako, zentzunik dauan kristiñauak baiño» —esan eutsan— Mikel'ek.

Bardin-samar itz egin eutson Marik be.

Egin gura eutsen mesedea onartu gura ez ba'eutsen, ez eukakela egundo be bakerik izango bere ba-

rruan —esan eutsen, Jose'—, eta gura nai gura ez ar-tuazo eutsen bere emokaria.

Jose etxan aberatsa, baiña bear sendo egiñik aurreratu-ta eukazan diru guztiak emon eutsezan bere ongilleeri, borondate osoz eta egundoko anaia-maitetasun zintzoz.

Uste-uste barik etxe-jabe egin izan ziran, ba, Lezaburu'koak, eta alkartasunezko baskari pozgarriaz ospatu eben, bertan, Lezaburu'n.

Aurrerantzian, anaia-arrebak bai'liran, etxeko-etxeko izan ziran, bizi guztian, etxalde bietakoak.

Eta, Imanoltxu zintzoa, zertu-ta geratu izan zan, pozaren-pozaz, zera ekarri eutson-eta: txirringuts dotorea.

ITURRIAGA

“ASABA ZAARRENA, GEUREA DOGU”

(2n SARIA)

Ikasturte barruan, Mikel eta Karmele'ren gurari nagusia, Aste-Santu, Gabon edo udako oporrak eltzea izaten zan; euren aitita-amamaren baserrira izateko.

Urtarrilla'ren irugarren eguna zan. Neba-arrebok aitita-amamaren baserrian egozan; jaiak ospatu ta oporrak igaroten.

Eguraldi bape onik ez egoan: ipar-aiza fina leio bitarteetan txistuka ta edurra etxala.

Afal-ostean, gauaro lez, sutondoan egozan laurak: neba-arrebak, amama ta aitita.

Amama, berna-artean otzarea jarrita, artaburuak zuritzen ziarduan, aitita, sutan egoan tambolina eragiten eta illobak, amamak zuritutako burutxekaz zirri-pastadaka sukalde guztitik olgetan.

* * *

Umeak, jolasean gogaituta, aititarenegana joan ziran barriketan.

—Aitita, emoidazu gaztaiña bat —esan eutson Mikel'ek oraindiño eperdiak jesarlekua laztandu orduko.

—Niri beste bat —bere abots gozoaz, Karmele'k.

—Artu, artu semetxook —esan eutsen aititak, tximorrez jositako eskuak luzaturik.

—Ummm... ze gozo dago —iñoan Karmele'k.

—Bai orixe —Mikel'ek.

* * *

Barriketan ekiñean xiarduela, berbeak berbea dakarrenez ta umeak beti ume diranez, Mikel'ek, ixillik egon ezinda, olan itaundu eutson aititari:

—Aitita, zure euskerea ez da guri ikastolan irakasten dauskuetakoa. Zelan izan daiteke ori, aitita?

—Ez dakit nik bai! —erantzun eutson samurkiro aititak.

—Amama, zer diñozu zuk?

—Zer esango dautsut nik ba Mikeltxo! —burua gora ta beera geldi-geldika eragiñez, amamak.

Aitita, Mikel'en zalantzea olan ezin eitekela itxi-ta, erantzuna emotera abiatu zan.

—Aditu Mikel Euskalerriko basoetan zer jazo dan.

*Zigarroa egiteko partikaratik tabakoa ta pape-
ra atara, patxadaz jesarri ta asi san edestuten.*

—Gure errian, aresti, pagadi, urkidi... ederrak egon ziran. Baso garbiar. Arek ziran parajeak! Eguzkiaren arerio trebeak. Zugatzen altzoetan txoriak abeslari, doiñu zoli ta eztiatsuz.

Baiña, orra non, apur-apurka, bai pagoak, bai aretxak, bai urkiak... botaten asi ziran: soloak bear ziralta nekazariantzat, larrak abereentzat, egurra olentzat... ta, euron bitartez ataratzen zan diruaz, jauntxoak, lantegiak sortuaz, gure erria gora jasoko eben asmoa egoan.

Baiña au kontua: pagoak, aretxak, urkiak... txikitu ta, kia, lantegirik ezin «erne».

Zugatz gitxi, sasia edo laarra ugari. Izadia minbera egoan. Gure Ama-lurra naigabetuta, aisekabetuta, zurbil.

—Aitita, lantegiak agertu ziran gure errian —iñotsan Karmele'k.

—Bai, baiña ez zugatz-triskantzai esker. Gure lurpean euki genduan burdinari esker bai.

—Jarraitu aitita, jarraitu —inotsan artega Mikel'ek.

—Lurrak sasiz edo larrez jantzirik egozala-ta, onek ito ta, lurroi onura atara bear jakola-ta, piñua sartzea otu jakoen. Landara galanta. Dirua-ren tramankulu. Gure aretxak, gure pagoak... gure landarak bastertu ta erbestekoak gureganatu nai.

Au zan batzuren mozkiñen iturria ta besteren biotz-miñen sugarra. Batzuk diruz polito orniduta, arrokeria dariola, «bakoitzak ordu onean bere opillari su egin beio» esanda. Besteak arnas-estuka, izerdi lamatan, oztaz-ozta, baiña ekiñean.

Orain, au kontuan arturik, erantzun egizu zeuk, Mikeltxo, zeure itaunari. Gaur be ez ete da au jazoten!

—Bai aitita. Gure artean dagoan sasiata otea, nonbaitetik ekarritako piñuz nai dabe ito; eta gure asaba zarrengandik arturiko landarak atara ta kito.

—Au bai negargarria —jarraitu eban esaten Karmele'k—, baiña egingo doguz aletinak, aitita, landarok sendo sartu ta kimu barriak loratu daitez gure Ama-lur zaarrean.

* * *

Oeratu orduko, aititak bertso bat abestu eutsen illobai. Mikel eta Karmele adi-adi egozan begiak negarrez lausotuta.

Aititak gau aretan esandakoa ez jakoen euren bizian aztuko.

«Gure errian landara ederrak daukaguzan bitartean, zaindu daiguzan, arduratuta, bizi garean artean.

Zugaztietan sasia ugari izango da bat-batean, ez bada indatzen biotz-biotzez "Aitor"-ena tartean».

MINTXIRI'K

MARTINTXU'ren ezin esana (3n. SARIA)

Asko dira munduan mutu jaioten diran umeak; bearbada geiago ezin-esana edo moteltasuna deitzen jakon gatxagaz datozenak. Mutu gizajoak gorria be eurekaz dabenez gatx bi orreikaz jarraitu bearke dabe bizitza guztian. Ezin-esana goiz edo berandu kendu leiken gatxa da, geienetan beintzat.

Astorkiko Martintxu Juan eta Joxeparen seme-alabetan bigarrena zan.

Zazpigarren urtean aurrera joan arren bere ezin-esanagaz gurasoentzat askotan asarrebide eta atsekabe-sorburu zan. Baiña berak gizajoak ez eban orretan errurik.

Juan eta Joxepa. Bere semeakaz Astorkira etorri zirala etzan olinño urtebete izango. Eta eldu ziraneko asi ziran, Martintxuren ezin-esana zala ta etzala, eurentzat kezka eta okerrak.

Bai ba, auzuneko mutil eta neskatoak etorribarria zan Martintxoren ezin-esanaz konturatuz asi ziran bere lepotik barreka, baita bera mutilla be

guztia burrukan eta ukabilka konpondu gurarik, bere indarragaz danak azpiratuko zitualakoan.

Eta egunero sortzen ziren asarreak eta burrukak umeen artean, baiña Martintxoren ukabilkadak txantxetakoak etziran eta laster sartu ziran beste umien gurasoak be euren nastietan eta burruketan.

Errua eurena zala ondo ekien arren aitagana edo amagana joan eta... «Ama, gure albora etorri dan mutil orrek jo egin nau». «Aita, orrek etorri-barria dan mutil orrek jo egiten gaitu». Olantxe asi ziran eztabaidak eta asarreak.

Jatsi zan Joxepa Munitibar'era eta zuzen D. Markoz Abadearen etxera sartu zan. «Egun on, abade jauna, ea zuk konpondu zeinken gure mutikoak bere ezin-esanagaz an etxeondo sortzen dauan oker-pilloa. Zeuk konponda ezin bozu esaldazu zelan konpondu geinken ondiño jente gitxi ezagutzen dogunak garean ezker».

SARIKETA

«Zagoz trankil, andre ona, eta etzaite geiegi es-tutu. Ezin-esana dauala entzun dot eta bere lepotik auzoko umeak barre egiten dabela, eta iseka eta barreok min egiten dautselako berak bere ukabillakaz erantzuten dautsela. Ea zure semetxo orri bere ezin-esana al bait arifien kentzea lortzen dogun, umeen arteko burrukok be alde eragiteko».

«Baña zelan lortuko dogu ori guztiori, abade jauna?»

«Zu etorri-barria zara ta ez dakizu, bearbada, emendik urran dagon Zearrotzako Andra Mariak urtero urtero Dagonill edo Abuztuaren 16'an, bere jai bijamonean ezi-esanagaz beragana eroaten dituen umeai gatx ori kentzen deutsela ta argi ta garbi berbetan etxera bialtzen ditula. An zuen alboan bizi dan mutiko bat be ezin-esana zan eta orain dirala urte bi Zearrotzako Andra Mariak gatx ori kendu eutsan».

Aoa zabalik egoan Astorkiko Joxepa D. Markos abade jaunak esaten eutsana entzuten.

«Orduan, abade jauna, zuk esan dozun jai ori laster dogunez, araxe, Zearrotzara eroango dot Martintxu eta beste ezin-esana dauan neska txikia-go bat, ea biai gatx ori kentzen jaken eta bere gurasuon biotzetan alako baten benetako poza izaten dogun».

«Bai, Joxepa, esan dezun lez egizu eta bertarako bidea nok erakutsi ezpadozu, neuk aurkituko deutsut orretarako lagun on bat urtero bertara egun orretan juten dana izan bë».

Ez dakit oitua ori oindiño bizirik dagon ala oraingo gauza guztien erabarritze edo aldatze-gose ta egarriak galdu eta zeatz kendu dituan ori eta bere antzeko ainbeste ekandu eder.

Eldu zan, ba, Martintxu ta bere arreba txikia Zearrotzara eroateko eguna. Astorkiko Joxepak arduraz gertu eban bere astotxoa, asto-otzarak gañean ipiñita; alde batean urte biko Ines alabatxoa joango zan, beste aldean egun guztirako bearke zitu- en janari-edarriak, esnea, ogi-tremesa, baita ardao apur bat be bide-erakusle lagunarentzat. Martintxu, azitxoa zanez, oiñez joango zan arutzian beintzat.

Munitibar'tik igaro ziranean oindiño eguna argitzeko egoan, Astorkitik ordu erdi lenago izan zan urteerea ta, goizeko bostak inguruan. An egoan Ondamendi taberna aurrean D. Markos abade jauna gizen eldu bat alboan ebal, Astorkiko andre ta umei itxuiten.

«Egun, on, abade jauna, beranduegi ete gabiz ordu onean Zearrotzara eltzeko?»

«Ez, etzabize berandu, ordu onean elduko zarie Zearrotzara. Oindiño arantza doianik ez da emendik igari, ta bearbada lenengoak izango zarie ara eltzen», esan eban abade jaunak eta zerbait esaten jarraitu eban. «Baita lagun on au be topau dot zuentzat, ona emen Goikola baserriko Nemexio, inguru-

ko bide guztiak ondo ezagutzen dituana eta Bolibar'eraño jatsi barik Ontzugaraitik bide laburrago batez Zearrotzaraño eroango zaituenä.

Eta Martintxuri gero: «Nora ua i txotxo? Ta oiñez gañera?»

Bere ezin-esanagaz larri ibilliko zala ondo ekia- nez amak nerak erantzun eutsan: «Zearrotzara, Andra Mariari ondo berba-egiten erakusteko eskat- zera. Aundi samarra eta azitxoa danez oiñez oingo dau jutaldia, gero etxerakoan nekatuta badago asto gañean etorriko da».

Ori olan dok?-itandu eutsan D. Markosek eta mutillak erantzun: Bbbaai, jjaauu... na».

Dardarka asten jakon bere biotza Joxepari ain larri bere Martintxu ikusten ebanean norbaiteri ezer erantzun bearrez edo.

«Agur», «Ondo ibilli» alkarri esanaz abiau ziran aldapan gora Zearrotzara joiezanak eta Zearrotza- ko Ama Birjiñari otoi bere bat egiten gelditu zan D. Markos abade ona, guztia ondo amaitzeko eska- tzen nunbait.

Erriko kanposantu ondolik igaro bearra eben eta ara eldu ziranean Nemexio Goikola bertan Lur- peratuta eukazan senideen alde Aita Gure bat esa- ten asi zan, baita Joxepak oitutz ori egiten pozik la- gundu be bere bide-lagunari.

Aldape baserriak igaro zituenerako eguna argi- tuta egoan eta Ontzugarairañon igon ebenerako eguzkia be agertuta.

Nemexiok Oiz maldetako bide luze ta laburrak ondo ezagutzen ebazala laster ikusi eta oartu eban Joxepak. An egoan, begien aurrean antxiñatik ain ospetsua dan Zearrotzako aleiza ederra eta kontu- ratu ziranerako bertara elduta egozan Joxepa, bere seme alabatxo biak astotxo ta guzti, Nemexio gidari ta zuzendari ebela.

Eldu ta bereala, astoa ondo lotuta itxi ondoren Joxepa eleiza barrura sartu zan bere ume biekaz. Eta altara nagusira urreratuz, Andra Mariari otoi- ka asi zan: «Emen natortzu, Ama ona, neure ume biontzat zerbait zuri eskatzera. Ume biok, batez be mutilla, ez dagoz ondo, aspalditik ezin-esana dauke eta gurasuok atsekabez beterik bizi gara. Arren, Ama maitea, beste ume askori egin dautsazun lez, egiezu nire bioi be argi eta garbi berba egiten ainbat ariñen astea; mesede orixe eskatzera etorri naiatzu, eta zugandik lortuko dodalako uste osoan nago.»

«Egiok, Martintxu, euk be erregu Zeruko Amari al dokan erarik onenean», esan eutsan gero bere se- meari.

Eta Martintxu be otoika asi zan.

Meza nausi ordua eldu zanean, eleiza bete bete- rik egoan. Eundaka izango ziran bertan aurkitzen ziran inguruetato ama ta umeak. Guztiak mesede bardña eskatzen, guztiak otro bardña egiten:

16'garren orrialdean jarraitzen dau.

QUMRAN'GO SALMUAK

XXI SALMUA

(euskerazko 3'garrena)

6-10'garren ataltxoak seksu-arriskuai dagokiez.

1. Gaztea nintzan ni uts egin baiño leen, eta uts ori gura izaten asi nintzan.
2. Bere edertasun guztiaz etorri yatan eta aren sakoneraiño arakatu neban.
3. Lorea zimelduarren be, maatsa eltzen danean, onek poztu egiten dau biotza.
4. Nire oiñak gozotasunean sendotu ziran, neure gaztarotik azagutu neban-eta.
5. Zabaldu egin neban nire belarria eta aundia be aundia izan zan nik artu neban irabazia.
6. Zori ona izan zan niretzat. Nire indarra neure irakasleari emon neutsan.
7. Alaia izateko asmoa artu neban, atsegiñean gartsua izan nintzan eta ez neban nire asmoa izten;
8. Orregaitik, sutu egin neban nire burua eta ez neban nire aurpegia aldendu.
9. Orregaitik, astindu egin neban nire burua eta ez neban goietan kolokarik egin.
10. Nire eskua zabaldu eta beronen ezerezari begira egon nintzan, garbitu egin nebazan esku-azpiak.

KEREXETA

QUMRAN'GO SALMUAK

XXII SALMUA

(euskerazko 4'garrena)

Sion, Jerusalem be ba-da, eta aren ondasunak Mesias'en ondasunen irudi da.

- 1 Zure mesedeak bere aldian (...)
- 1b Neure indar guztiaz bedeinkatzeko ekarten zaitut gogora, Sion.
- 2 Nik maite izan zaitut. Bakea etorri bedi.
- 3 Zure salbamenaren usteak (...). Gizaldiak eta gizaldiak bizi izango dira zugan. Jaungoikozaleen gizaldiak.
- 4 Zeure edertasuna izango dira: zure salbamenaren eguna biotzez gura daben guztiak, osotasunaren aintza ugarian be poztu egingo dira.
- 5 Zeure aintzatik janarituko dira. Zure plazetan saltoka jardungo dabe. Ekarri egizuz gogora zure profeten maiteasarrak, 6 eta zeure Jainkozaileen egintzetan izango zara goratua. Baztatu egizu indarkeria zure erditik. 7 Zearo kenduak izan beitez zuegandik maltzurkeria ta zuzenbagekeria.
- Poztu egingo dira zure semeak zure barruan. Zure maiteak zeuri lotuta egongo dira. 8 Zure aukeratuak bai itxaron dabela zure salbamenaren!; (zure aukeratuak) bai egin dabela dolu zuegaitik!
- Ez bedi galdu, Sion, zure itxaropena, 9 ezta zure iraupena erantzun bagarik geratu be.
- Zein zintzo galdu da iñoiz, 10 eta nor urten da onik iñoiz bere zuzenbagekeritan?
- Gizona beronen bidearen arauz izaten da aztertua. Bakotxari bere egintzen negurrira emoten yako ordaiña.
- Zu inguratzen zenduezan arerioak, Sion, ondatuak izan ziran. Zure etsaiak sakabanatuak izan ziran.
- Atsegingarri yako (Jaungoikoari) zuegandik datorren gorapena, Sion!
- 12 Mundi guztira zabaltzen da. Askotan dakart gogora (Jaungoikoa), zeu bedeinkatzeko. Biotz-biotzez bedeinkatuko zaitut!
- 13 Zuzentasun betikoa jadesi daikezu zuk, baita santuen bedeinkapena artu be.
- 14 Artu egizu zutzaz esan zana: profetak agertu ebezan amesak. Jagi, zabaldu zaituz, Sion!
- 15 Goratu egizu zure Gorengoa, zure Salbatzaillea. Nire arimea poztu egingo da zure aintzan.

KEREXETA

BERRIOTXOA ANAIA, OLERKARI

Lengoan, bagillaren 2'an, gabe-ko amarrak bost gitxiago, deia urrutizkiñez: «Izpar txar bat zuretzat: Berriotxoana Anaia il zaigu. Biar illetak, arratsaldeko bostak eta erdietan; etorri nai dezu itzaldia egitera?» Eta nik bat-batez: «Bai orixe!»

Barrua mindu eustan adiskidearen eriotza jakiteak. Aspalditik genduan alkar ezagun eta maite—Txera biozkorra egiten geuntson batak besteari. Ni baiño ohea zan bera; ama il jakonean be, Izurtzara eroan ninduan meza emon eta itzaldia egitera; Olerti-egunez sarri eldu oi zan Larrara, eta igaz San Juan inguruan Gogortetxe onetan igaro zituan egun batzuk, ia aste osoa, eta San Juanez Ofrendo'ko baselizara igon zan meza entzute-ra; eta azkenez, ango jenteari onela esan eutson: «Datorren urterarte». Atsegin eban Larra aldea ta askotan margoztu zituan emen inguruko bazterrak.

Irun'en il zan B. Berriotxoana Anaia eta illetak be antxe ospatu ziran. Bagillaren 4'ko DEIA'k onela iñoan: «Bere Anaidiko lagunak, zenbait senide, ikasle askotxo eta euskaltzale mordoxka bat inguruan zituela, atzo arratsaldeko 5,30'etan ospatu ziren Irungo'go La Salle-enean Nikolas Altzola Gerediaga, Anai Berriotxoana zena-ren hileta-elizkizunak. Anai Berriotxoana herenegun hil zen Irungo lasailletarren komentuan, 59 urte zituela».

Illeta-elizkizun ederra benetan. Eta beste batzuk be, irudimenari askatasuna emonik ikasi dagien gauzak zelan barritasunez jantzi, emen doa an egin zanaren pitin bat. Gorpua il-aretotik elizara kantuz eroanda gero, danok altara nagusian eta jarleketan zanaren aurrez-aurre gengozala, Berriotxoana anaia nor zan iragarri zan lenengo; gero, aren bateoa gogoratuz, zapi zuri bat jarri zan ataute gaiñean; ondoren, aren loba batek Pazko-zuzia biztu eban; gero besteok etorri ziran, Biblia ataute gaiñean ipiñi, irakasle zintzo ta kristau izan zalako, Anaidiko araudi edo erregela, bizitza osoan zintzo bete ebalako, eta azkenean areitzadar bat, euskal erria maitatuz be-rau ta bertoko gauzak goraltzen bizitzea igaro ebalako.

Mezea euskeraz izan zan oso osorik, altarakoak eta erriak itzal aundiz abestua. Altaran erdiko Bilbo'ko Gotzaintegiko Bikario nagusi dan Karmelo Etxenagusia izan zan Aita Onaindia, Lino Akesolo, Aita Julian betarrandarra ta Aita Iguñiz kaputxiñoa albo bietan ebazala. Euskaltzaleen artean batez be, lagun asko zituan or-emen gure Anai onak, eta emengo lau probintzietatik eta mugaz bestaldetik be bai, laguntalde ederra alkartu giñan adiskide leialari azken agurra egiten eta geuk alkarri, izten euskun utsunea zala-ta, atsekabe ta dolumiñean laguntzen.

BIZITZ-ORRIAK

Durango'tik bertan dagoan Izurtza erritxoan jaio zan Berriotxoana anaia 1922'ko abenduaren 30'an. Jit eta jasez bear bada, kuttun eban berariz bere lurra, sendia, Izurtza eta bertoko gauzak jaso ta zabaltzen etzan gitxi saiatu. Eta beti be bakotxak bereari ekitea oso txalogarri dauanik ezin daikegu ukatu.

Txikitatik etorren ikasle ta langille. Baita ertilari be. Lenengo ikasi-masiak jaioterrian bertan burutu ostean, Bilbo'n ikasi eban komertzio-karrera. Bere etxe inguruko edertasunak be laster arrotu eutsoen barruan eder-irrits bizia; eta ikasle gaztetxo zala, asi zan pinturaren ezkutuak ikasten be. Ederrak, bai izadikoak eta bai norberak sortuak, lilluratua eka-rran eta bizitzaldi osoan marrazki-pintura ta euskal literatura ekin eutson; azken urteotan batez be, poesi bikaiñak ere borobilduz.

Lasailletar egiñik irakasletza izan zan aren arlorik beiñena. La Saille-enean erakutsi egin eban, bardin San Martzial Ikastetxean. Urte mordoa emon eban orretan, beti zoli, zintzo, apal, maitekor: orixegaitik, jakiña, ikasleak maite-maite eben. Zintzotasunez, izan be, errez irabazten ebazan inguruko biotzak. Ona zan, Jainko-zalea zan, eta tasun biok eder ditugu noski gazteen azkuntza ta eziketarako; beingoan jausten dira —baita gaur be—, euliak ezti-txarroan

legez, gazteen biotzak maisuaren saceetan. Zer diñadan dakidala diñot au, azken garaian gazteen irakasle luze samar izana naz-eta.

Bere bizitzako egunik geienak Irun'en egiña izan arren, Bilbo'n —Santiago Apostoluaren Ikastetxean eta Deustu-n be egin zituan egotaldi batzuk, beti irakasten. Azkenean, iru bat urte dirala, biotzetik gaixo samar ebillelako, Irun'era bialdu eben nagusiak, ots, il jakun La Saille-eneara, emengo euskal liburutegiaren arduradun. Eder eban arlo onetan ziarduela izan dau Jaunaren deia. Izatez eta ekiñez ona bait zan, Jaunak onezkeroko betiko argiaren argi dizditsuz sariztu dautsoz lur-gain onetan goiko leiaren onez artu ta eroan zituan neke guztien lan-ixuriak.

EUSKAL IDAZLE

Asko idatzia dogu Izurtzar jakintsua. Lan txalogarria osotu eban euskal letretan, bai itz lauz eta bai itz neurtuz. Apala izan arren, bide ertzeko bioltxo lez nabarmendu jakun ainbat sailletan, baiña batez be euskereak ditun pitxiak jasoten: lan txikiak eder eban. Lau ta berezkoa zan bere idazkera, zabarra ez baiña geiegi landu bagea: mendi-egalean gorderik dagon iturriaren ur-aria iduri. «Bere aldetik doa —diño K. Mitxelena'k—, gure literaturaren onean, ez iñoren gidari izateko asmotan, ez iñoren mutil».

Asko idatzi ebala esan dot, eta orretan nago. Irun'en Emilio Navas'ek zuzentzen eban «El Bidasoa»-n argitara ebazan lenengo bere lanak, ugari idatzi be. Gero euskeraz ain zuzen, La Saille-enean ateratzen zan «Nora»? aldizkariaren bultzatzaile errime izan zan. 1963'tik aurrera «Egan»-en idatzi eban; eta «Zeruko Argia», eta «Karmel»-en eta «Olerti»-n; «Arantzazu»-n, «Herria»-n eta abarren, euskeraz. Eta erderaz, BAP-en, «Vida Vasca»-n, eta abar. Aren lanik ederrena aldizkarietan sakabaturik dago. Eta beti, esan dogu,

saio laburrak dira aren artikulua, kontakizunak, izkirimiriak, olerki-
txoak, arte-izparrarak.

Orrez gaiñera, ba-ditu iru liburu be; bat erderaz, *Cien autores vascos* (Donostia, 1966) —eztau nire izenik aitatzen, ak iru bider eskatu arren, oso lanpetua nenbillelako, ez bait neutson ezer bialdu—; eta bi euskeraz, *Atalak* (Zarautz, 1967) eta «Bigarren Atalak» (Zarautz, 1972). Liburu biok txit atsegingarriak dira euskal arrobian lan dagigunontzat, gauza ain jakingarriak datoz aurotan. Guztiz gozo esanda gaiñera, edozeiñek ulertu ta ausnartzeko moduan, jakia. Irakurterakoan, idazkortza eroian beti atz-arteana eta ortan aurkitzen eban bitxia, euskal literaturarean onerako ba-zan batez be, jaso egin oi eban eta artikulutxo bat osotu.

Bere lanak eta liburuak izenpeztzean ainbat izen-orde erabilli euskuzan: «Bitaño», «Markue», N. de Gortazar», «Ozerin-Jauregi», «Dolometa», «Oxinondoko Txoria», «Bidaurreta», «Alzarte», «N. A. G.», «H. V. B.», «Unai Anai» eta besteak.

Osozuz joian lanak sari tu nairik edo, Euskaltzain urgazle izentatu eben 1957'garren urtean.

OLERKARI

Ederraren galtzarrera jo eban bizitzaldi osoan, gaztetatik nunt bait. Emen, pintura soloko lanai ikuturik egiteke, olerki edo poesi barrutian egiñak aitatuko ditugu. Ba-ekian mundi bi daukaguzana ingurumari, kanpokoa eta barrukoa; biai begiratzen eutsen, txeratsu ta arretaz begiratu be. Kanpokoa jaso, izadiak upelka damoskuna, edertasunez gaiñezka bait daukagu; eta barruan be, arima almenak naasi ta irabiatuz, ederfrutuak agertazo. Orixe da bai entilariaren, artista danaren lana. Eta Bitaño artista zanik ezin ukatu.

Artista bat era askotara agertuko leiteke artista, eder-zale. Baiña

olerkia, poesia lantzean edertoen. Pintura artea da, musika artea da; Zubiaurre anaiak garaitarrak, margolari artistak ziran; K. Arriaga artista zan, musikalaria. Arte batzuk ibillian egiten diranak dituzu, arte dinamikoak dira, baiña irauten ez dabenak; beste batzuk plastikoak, margo-arte, etxegintza, tailu edo erudigintza adibidez, eta oneik eginda gero be irautem dabe. Olerkia, antzerkia, dantza ta musika, arte-lan dinamikoak dira.

Itzaren bidez adierazten dan artea dogu bikaiñena, gizasemeak bere barne-zirrada sotillenak orrelaxe azaltzen ditu-ta. Berriotxo anaiak be modu orretan erakutsi euskun bere barru apal, eder, esan-naiez betea. Ez dakigu noiz asi zan olerki-lanak egiten, baiña «Egan»-en eta «Olerti»-n beintzat, eurrez agertzen dira aren olerkiak. Barri-xale agiri da gaiñera, mamiñez eta azalez. Etzan edozerrez naikotzen zana. Ez dogu, bear bada, goraldi aundikoa, onetan be apala jakun-eta. Baiña ba-dabe aren neurtitzak, olerkari garaien lanak daben ezkutu kutsuzko arnasa-giro apartekoa.

«Kantuz eta Itzaropenez» titulupean argitaratu zituen bere bertsorik geienak. Ona bat 1967'ko «Olerti»-n datorrena: Ez eukan arek dirurik / ezta eukiteko / itzaropenik bere, / alan da guzti be / ez jakon aztu / aurrerantza / joaten; / urrengo egun-sentiaren / argiagaz / beti siñisten eban / bezperako / illuntzietan, / betikotasunezko / goi-maitasunaren / susmoa / aurkitzeko / itzaropena / ekarten / eutsaleko. / Arrigarrizko / egoi-maitasunaren / susmoa / aurkitzeko / itzaropena / ekarten / eutsalako. / Arrigarrizko / egunsenti / azken bakoan / silisten / jakin eban / eban / arek, / eta azkeneraño eruan eban / irribarre / atsegin / bategaz / bere bizitzako / kurutze astuna».

Onakoxeak dira aren olerki arin mazalak.

AITA ONAINDIA

ASTIRO

12'garren orrialdetik dator.

«Ama ona, erakutsi zure gukanako maitasuna, umetxuok argi eta garbi itz egiten ainbat ariñen asi daitezala».

Amaitu zan alako baten elizkizuna. Astorkiko Joxepa erdi negarrez, asi zan eleizatit urteten, baño urten aurretik esan eutson Martintxori beragaz AGUR MARIA esateko, eta argi eta garbi itz egiten ainbat ariñen asi daitezala».

Amaitu zan alako baten alizkizuna. Astorkiko Joxepa erdi negarrez, asi zan eleizatit urteten, baño urten aurretik esan eutson Martintxori beragaz AGUR MARIA esateko, eta argi eta garbi asi zan mutilla ezelako traba edo eragozpen barik AGUR MARIA, JAUNGOIKOAREN AMA, ERREGUTU EGIZU GU PEKATARION ALDE... esaten. Bereala konturatu zan bere ama Joxepa Andra Ma-


riak bere eskariak entzun zituala eta... eta miraria eginda egoala. Pozaren pozez, Ama Birjiñari eskerak emon eta bere ume ta Nemexio Goikola, lagun zituala, eleizondoko zelai baten bazkaldu ondoren, Astorkirako itzulera bidea artu eban.

Munitibar'en D. Markos abadea euren zain egoan, eta ikusi ebanerako Martintxu argi eta garbi berbetan asi jakon: Zearrotzako Amak ezin-esana kendu daust eta ointxe bai ondo eta pozik nagola, abade jauna, Jaunari eta berorri eskerrak».

Eldu ziran Astorkira ta auzoko ume guztiak asko poztu ziran Martintxu burrukalaria ezin-esana barik argi eta garbi ikustean.


Ipuña ala egia? Nik ipuintxo bat lez jarri dotan au bearbada jazorikoa izan leike. Olako alatz edo mirariak pilloka egin zituan nire umearoan Zearrotzako Andra Mariak. Lenago bearbada geiago.

24.ª ERANTZUNA



EZKER ESKUMARA

- 1 Ave nocturna - Este, esta - Televisión.
- 3 Recuerdo.
- 4 Mancha - Cuenta, factura.
- 6 Calidad.
- 7 Multar.
- 8 Agujero.
- 9 Agujero.
- 10 Pues - Morir.
- 11 Cuero, piel.
- 12 Estrella - Pelar - Gato montés.
- 13 Mirar - Palo, vara, asta.
- 14 Agosto.
- 15 Cojo - Vanidad, pompa.
- 16 Diario.
- 17 Desgranar - Tuyo.
- 18 Yo lo decia - Pequeño, bajo.
- 20 Suburbio - Sobaco.
- 21 Tú mismo - Junto al fuego.
- 22 Cómo (obrar como) - Señorita, maestra.
- 23 Tunante - Sueño - Trabajo - Aliento.
- 24 Epíteto despreciativo.
- 25 Patriotismo - Aseado.



GOITIK BERA

- | | |
|---|---|
| 1 Insustancial - Tropiezo - Goma viscosa. | 13 Himno - Llegar, acudir. |
| 3 Primavera - Lujuria - Ansioso. | 14 Ola - Tocino - Sin embargo. |
| 5 Tanto como este - Diciembre. | 15 Vuestro. |
| 6 Advertencia - Frío. | 16 Abundante - Escarcha, helada - Acción. |
| 7 Sacristán - Reloj. | 17 Maíz (el). |
| 8 Dos. | 18 Océano - Separar, distribuir. |
| 9 Escalofrío - Tierra, mundo. | 19 Albañil - Lo dicho. |
| 10 Poder. | 20 Vender - Despreciativo. |
| 11 Ocupado - Teléfono - Fuste, garbo. | 21 Lo tienes - Silencio. |
| 12 Quejido. | 22 Crueldad. |
| | 23 Orfandad - Junio. |
| | 25 Lista - Cuádruplo - Oración (1a). |

EUSKERAZALEAK

EGUNEN JOAN - ETORRIAN

Autezkundea izan dabe Andalusia'n. España'ko Nagusia be, baten, bitan eta ainbat bidar esaten dabil Nagusitzaren epeari eutsi egin bear dautsola, izteko eguna etorriko dan-arte.

Eta etxean zer daukagu?

Atzokoa joan zan, gaurko egunean bizi gara, eta etortekoak be etorriko dira biziko diranentzat.

* * *

Emengoak, etxeko autezkundeak, urrutiratu ziran eta baten batzuk ba-dabilkiguz esan barik esaten beti guztirako jesarri dirala aurkietan, txakur ametsez.

* * *

Ez dagiela uste, beti-iraunerako izango diranik gogoan eta biotzean euskerea, Bizkai'ko euskerea, euskera gaisoa dauken neurrian baiño euki ezik.

Bizkaia! Bizkaia! Emon dozun dirutik zenbat ber-eskuratu dozu euskerearentzat?

* * *

Aterik ate dabillen eskalea lez zabiltz, ukarra nok emongo billa.

Emoterik nai-ezaren atxakirik asko entzuten dozu, jaunak lagun dagitzula be bai, eta iñoiz-iñoiz atetatik aldendu zaitez, eskupeko txikitxuen bat emon be bai.

* * *

Euskaltegiak, euskal-ikastolak eta olako zeren batzuk ate ta etxeetan jartzen deuskuez, dalako batua-ren alde.

Zori txarrez jaio zen Bizkai'ko arranoa Bizkaia'n, abertzaleak dirala diñoenak be Arranoaren etsai doguz-eta.

* * *

Zori gaitzez esan ba'dot, zorionez be esan dagidan, bera, arranoa, izan ez ba'litz, ez zan izango ez abertzalerik, ez aberritik.

Lurrean zotz bat aurkitu arren, Bizkai'ko euskerearentzat kaltegarri jakinda be, baztertuten ez dauna-rentzat izango ete da urrengo autezkunde-txartela?

Nirerik ez beintzat.

Euskera-bako Euzkadirik gura ez ba'dogu, Bizkaiera-bako Bizkai'rik ez dogu nai.

LANDAJUELA'tar A'k

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

Bizkaia'k bere Kutxa dauko



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA



BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA

Laguntza aundia